

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

Añanako Kuadrillako mugikortasun iraunkorreko eta erabilera turistikoko eskualde-zerbitzua emateko bizikleta elektrikoen maileguaren prezio publikoa ezartzeko ordenantza fiskala behin betiko onartzea

Añanako Kuadrillak 2025eko abenduaren 15ean egindako ezohiko batzarrean hartutako erabakiaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igaro da. Erabaki horren bidez, hasiera batean onartu zen Añanako Kuadrillako mugikortasun jasangarriko eta erabilera turistikoko eskualde-zerbitzua emateko bizikleta elektrikoen maileguagatiko prezio publikoa ezartzeko zerga-ordenantzaren aldaketa, eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako erreklamazio bakarra ebatzi ondoren, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikularen 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoarekin bat etorritik, behin betiko onesten da erabaki hori, eta argitara ematen da ordenantza horren aldaketaren testu osoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) eta 70.2 artikuluetan aurreikusitakoa betez.

Ribabellosa, 2025eko abenduaren 16a

Lehendakaria

RUBÉN TORREMOCHA GALÁN

AÑANAKO KUADRILLA

Añanako Kuadrillako mugikortasun iraunkorreko eta erabilera turistikoko eskualde-zerbitzua emateko bizikleta elektrikoen maileguaren prezio publikoa ezartzeko ordenantza fiskala behin betiko onartzea.

Añanako Kuadrillak 2025eko abenduaren 15ean egindako ezohiko batzarrean hartutako erabakiaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igaro da. Erabaki horren bidez, hasiera batean onartu zen Añanako Kuadrillako mugikortasun jasangarriko eta erabilera turistikoko eskualde-zerbitzua emateko bizikleta elektrikoen maileguagatiko prezio publikoa ezartzeko zerga-ordenantzaren aldaketa, eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako erreklamazio bakarra ebatzi ondoren, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikulua 3. eta 4. apartatueta xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onesten da erabaki hori, eta argitara ematen da ordenantza horren aldaketaren testu osoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) eta 70.2 artikuluetan aurreikusitakoa betez.

Mugikortasun iraunkorreko eta erabilera turistikoko eskualde-zerbitzua emateko bizikleta elektrikoaren maileguaren prezio publikoak ezartzeko ordenantza fiskala Lehenengo artikulua. Kontzeptua

Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 41. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, Añanako Kuadrillak prezio publikoa ezartzen du erabilera turistikoko eta eskualdeko mugikortasuneko bizikletak alokatzeko zerbitzua emateagatik, modu ludikoan, paseorako eta joan-etorrietarako, eskualdeko bideetatik eta igarotzeko gaitutako gunetatik. Prezio hori ordainarazteko, mugikortasun jasangarriko eta erabilera turistikoko eskualdeko zerbitzua emateko bizikleta elektrikoaren maileguaren prezio publikoko ordenantza fiskal hau aplikatuko da.

Bigarren artikulua. Ordaintzera behartuak

Prezio publiko hori ordaindu beharko dute aurreko artikuluan aipatutako bizikletak erabiltzea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.

Hirugarren artikulua. Sortzapena

Ordaintzeko betebeharra eskualdeko bizikleta-zerbitzua horretarako gaitutako edozein lekutan erabiltzeko eskatzen den unean bertan sortzen da.

Laugarren artikulua. Ordainketa

Ordainketa zerbitzua ematea eskatzen den unean bertan egingo da.

Bosgarren artikulua. Zenbatekoa

Lehenengoa. Bizikletak erabiltzeko tarifak honako hauek izango dira:
Partikular, herritar eta bisitarientzat:

KONTZEPTUA	TARIFA (€)
EGUERDIKO ALOKAIRUA (GOIZEZ EDO ARRATSALDEZ)	3,00
EGUN OSOKO ALOKAIRUA	5,00

Goizeko ordutegizat hartuko da 09:00etatik 14:00etara bitartekoa.

Arratsaldeko ordutegia 15:00etatik 20:00etara bitartekoa izango da.

Profesionalentzat, pertsona fisikoak (autonomoak) edo turismo-sektoreko pertsona juridikoak izan:

KONTZEPTUA	TARIFA (€)
EGUNEKO ALOKAIRUA	3,00
ASTEKO ALOKAIRUA	25,00
HILEKO ALOKAIRUA	70,00

Bigarrena. Honako hauek izango dira elementu lagungarrietarako ezarritako tarifak, alokairu-mota edozein dela ere (eguerdia edo egun osoa), unitateko:

KONTZEPTUA	TARIFA (€)
KASKOA*	1

* Bizikleten aparkalekuan zorro higienikoak jarriko dira kaskoak erabiltzeko.

Hirugarrena. – FIDANTZA: alokairu bakoitzeko 50,00 €-ko fidantza atxikiko da bizikleta bakoitzeko, eta itzuli egingo da bizikleta itzulita, egoera onean dagoela egiaztatu ondoren.

Laugarrena. Tarifa guztiek BEZa barne daramate.

Seigarren artikulua. Salbuespenak eta hobariak

Lehenengoa. Doakotasuna edo bizikleten erabileran hobaria onartu ahal izango da,

interes publikoko edo turismoa sustatzeko eta zabaltzeko arrazoiek hala justifikatzen duten kasuetan. Horretarako, Añanako Kuadrillako turismo-sustapenaz arduratzen den eskualdeko organoak zehaztu beharko du kasu zehatz horretan aplikatuko diren hobarien doakotasuna edo zenbatekoa, bai eta doakotasun edo hobari hori aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak ere.

Bigarrenena. Doako probaldia 2026ko urtarrilaren 1etik irailaren 15era artekoa izango da.

Hirugarrena. – % 10eko hobaria izango dute:

Familia ugaria edo guraso bakarrekoa dela behar bezala egiaztatzen duten kide guztiak, dagokion liburua edo titulua indarrean aurkeztuta, bai eta izaera hori egiaztatzen duten familia hezitzaile bateko kide guztiak ere. Lkasle-txartelaren, gazte-txartelaren edo langabe-txartelaren titularrek. Hobari hori biribildu egiten da, kudeaketa errazagoa izan dadin, eta honako emaitza hau lortzen da % 10eko hobarietarako:

	EUROS
EGUERDIKO ALOKAIRUA (GOIZEZ EDO ARRATSALDEZ)	2,00
EGUN OSOKO ALOKAIRUA	3,00

Zazpigarren artikulua. Kudeaketa-arauak

Añanako Kuadrillak kudeatuko du zerbitzua, eta mugikortasun jasangarriaren eta erabilera turistikoaren eskualdeko zerbitzua emateko bizikleta elektrikoaren mailegua arautzen duen ordenantzaren arabera izango da. Azken xedapen bakarra.

Añanako Kuadrillako Batzarrak hartutako erabakiaren bidez 2025ean onartutako ordenantza hau testu osoa Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da indarrean.

Ribabellosa, 2025eko abenduaren 16a.

LEHENDAKARIA,
Rubén Torremocha Galán.